

2019ko
San Fausto
jaietako
**HIZKUNTZAREN
NEURKETA**



Berbaro Elkarte

1. Sarrera

Azken urteetan San Fausto jaietan ikusi eta bizi izan ditugun ekimenen hizkuntzak sortutako kezkak bultzatuta, txosten honetan batzen den neurketa egin dugu aurten. Uste dugu beharrezkoa dela San Fausto jaietan programatzen eta eskaintzen den egitaraua zein hizkuntzatan egin den aztertzea, datuak mahai gainean ipini eta aurrera begira zer hobetu behar den zehaztea.

Erreferentzia moduan Donostiako Bagera Elkartek Aste Nagusian egiten duen hizkuntza neurketa hartu dugu, eta euren metodologia eta egiteko moduan oinarritu gara.

Azterketa honen helburua datu zehatzak eman eta hurrengo urteei begira jaietan euskarazko eskaintza handitu eta nagusi bilakatzea da, Durangoko jaiak jai euskaldunak izan daitezen. Euskarak Durangon merezi duen lekua behar duela uste dugu – jaietan batez ere, jendeak momentu atseginak eta lagun-arteak bizi dituen sasoiak delako – eta hizkuntza gutxitua izanik, erabateko lehentasuna behar duela.

Horretarako, datu hauek emateaz gain, Berbaro Elkartea prest dago jaien antolakuntzan aritzen diren eragile, norbanako eta elkarteekin harremana egin eta laguntza emateko.

2. Metodologia eta neurketaren lagina

2019ko San Fausto jaietako bi asteburuetan (urriaren 11tik 14ra eta 18tik 20ra) programatu diren ekintza gehienak neurtzen saiatu gara, udaleko egitarau ofizialeko ekimen gehienak neurtuz eta baita hortik kanpo dauden beste batzuk ere. Oro har, ekimen jendetsuenak neurtu ditugu, eta guztiei garrantzia bera eman diegu, parte hartzaile kopurua neurketatik kanpo utziz.

Ekintza baten hizkuntza zehazterako orduan, lau elementu izan ditugu kontuan:

Aurkezpena: Saioak edo ekintzak aurkezpenik izan badu, norbaitek sarrera bat eman badio, zein hizkuntzatan egin duen.

Ekintza: Ekintzak berak hizkuntzarik izan badu, zein den erabili den hizkuntza.

Dinamizazioa: Ekintzak aurrera jarraitzeko jendea badago lanean edo dinamizatzen, hauek zein hizkuntzatan zuzentzen zaizkien parte hartzaileei.

Euskarriak: Idatzizko euskarriak egon badira (kartelak, orriak, letreroak...) edo soinuuzkoak (kuñak, musika...) hauek zein hizkuntzatan izan diren.

Lau elementu hauek behatuz, ekintzak oro har euskaraz, erdaraz edo elebitan izan diren zehaztu dugu, beti ere jakinda batzuetan bata eta bestearen arteko mugak nahiko lausoak direla, garrantzia gauza bati edo beste bati emanaz gero.


Erdaraz izan diren ekintzen barruan gazteleraz eta ingelesez egin direnak daude.

Guztira 91 ekintza behatu ditugu, ondorengo irizpideak kontuan hartuta:

- Hizkuntza duten jarduerak hartu dira kontuan bakarrik.
- Ekintza bera parte hartzekoa izan bada (lehiaketak, jolasak...), ez da parte hartzaileen hizkuntza erabilera neurtu, soilik antolatzaile eta dinamizatzaileena.
- Ekintza bat uneoro martxan egon bada (barrakak adibidez), egunean behin egin izan balitz bezala hartu dugu kontuan.


3. Neurketaren emaitza orokorrak

Neurtu diren 91 ekintzetatik, 37 izan dira erdaraz, 32 euskaraz eta 22 elebitan. Hemen ikusi daiteke modu grafikoan:




Alde batetik helduentzako ekintzak eta bestetik umeei zuzendutako ekintzak ipintzen baditugu, hauek dira ditugun emaitzak:


Helduei zuzendutako 65 ekintza neurtu dira, hauetatik 24 erdaraz, 25 euskaraz eta 16 elebitan:



Helduei zuzendutako eskaintza honetan, arloka sailkatuz gero, honela geratuko litzateke:



Umeei zuzendutako ekintzetan ordea, 26 neurtu dira, erdarazkoak 13, euskarazkoak 7 eta elebitan 6 izan direlarik:




Banaketa hau egiteaz gain, datu berdinak banatu ditugu antolatzaileen arabera, alde batetik Jai Batzordeak antolatu dituen ekintzak, beste alde batetik Txosna Batzordeak antolatutako ekintzak eta azkenik beste eragile batzuek antolatu dituzten ekintzak.

3.1 Durangoko Jai Batzordearen egitaraua


Jai Batzordeak antolatutako egitarauaren barruan sartu ditugu Jai Batzordeko antolakuntzatik sustatzen diren ekintza guztiak eta baita Durangoko beste eragile batzuek egiten dituzten ekintzak ere, jai batzordearen oniritzi edo laguntzarekin.

Beraz, hau da Durangoko Jai Batzordeak ondu duen egitarautik neurtu duguna, hizkuntza irizpideen arabera: neurtutako 60 ekintzetatik 25 erdaraz, 15 euskaraz eta 20 elebitan.









Helduei zuzendutako ekintzak eta umeentzako direnak bereizita, honela geratzen dira emaitzak:


Jai batzordeak antolatuta helduentzako 43 ekintza behatu dira, eta emaitza hau izan da: 19 erdaraz, 10 euskaraz eta 14 elebitan.



Arloka bananduta:




Umeei zuzendutako egitarauko ekintzetatik, guztira 17 behatu ditugu, hauetatik 6 erdaraz, 5 euskaraz eta 6 elebitan izan direlarik.




3.2 Durangoko Txosna Batzordearen egitaraua

Txosna batzordeak landutako egitarauari dagokionez, hauek dira neurtu ditugun datuak: osora 24 ekintza behatu ditugu, hauetatik 17 euskaraz, 5 erdaraz eta 2 elebitan.





Kasu honetan ere, helduei eta umeei zuzendutako ekintzak bananduz gero, emaitzak modu honetara geratzen dira:

Helduei begira egindako ekintzetan, 22 ekintzatik 5 izan dira erdaraz, 15 euskaraz eta 2 elebitan:




Hauek ere arloka banantzen baditugu hauek dira emaitzak:






Umeei zuzendutako ekintzei dagokienez, 2 ekintza egin dira eta biak izan dira euskaraz:



3.3 Beste eragileen egitaraua eta eskaintza

Atal honetan Udal programazioan ez dagoen baina jende ugari erakartzen duen elementu bat behatu dugu: barrakak. Umeei zuzendutako dibertsio gunea da hau, eta horrela tratatu dugu.

Neurketa honetan hartu diren 7 egunetatik 7tan barraka gunea erdaraz izan da nagusiki:



4. Behatutako ekintzen zerrenda

Egia da ez ditugula jaietan egin diren ekintza denak behatu, baina bai gehienak eta jendetsuenak, eta horrek eman digun lagina benetan esanguratsua da eman ditugun emaitzak orokortzat hartzeko.

Bestalde, neurtu ditugun ekintzak zein hizkuntzatan izan diren esaterakoan, ekintza behatu duenaren momentuko neurketaren arabera egin dugu, eta badaezpada, behatutako ekintza denen zerrenda eskuragai ipintzen dugu hemen, norbait ados ez badago esan diezagun.

Hemen daude ikusgai behatu ditugun 91 ekintzak, eta euretako bakoitza oro har zein hizkuntzatan izan den:

EKINTZA	SAILKAPENA	ANTOLATZAILEA	HIZKUNTZA
Barrakak	Haurrak	Barrakak	Erdaraz
Txupinazoa	Ekitaldia	Jai Batzordea	Elebitan
GhostNumber & His Topsy Gypsies	Musika	Jai Batzordea	Erdaraz
Txupinazoa Ernairen eskutik	Ekitaldia	Txosna Batzordea	Euskaraz
Rockalean	Musika	Jai Batzordea	Elebitan
Desorden	Musika	Txosna Batzordea	Erdaraz
Tribade	Musika	Txosna Batzordea	Erdaraz
Adrenalized	Musika	Txosna Batzordea	Erdaraz
Manifestazioa	Ekitaldia	Txosna Batzordea	Euskaraz
Sukalki txapelketa	Lehiaketa	Jai Batzordea	Elebitan
Esku pilota txapelketa	Kirola	Durango Pilotazale Elkarte	Euskaraz
Zumba family	Kirola	Durango Kirolak	Erdaraz
xakea	Haurrak	Larrasoloeta Xaketaldea	Erdaraz
Tailerrak	haurrak	Iñurri EskauT Taldea	Erdaraz
Haurparkea	Haurrak	Jai Batzordea	Elebitan
Jumping, puzgarriak eta jolasak	Haurrak	Jai Batzordea	Elebitan
Txupinazotxikia	Haurrak	Jai Batzordea	Euskaraz
Los Chimberos	Musika	Jai Batzordea	Erdaraz
Gazteegunekobazkaria	Besteak	Txosna Batzordea	Euskaraz
Motoziklismo pilotuen eta Supermotoen erakustaldia	Haurrak	Jai Batzordea	Erdaraz
AICE DJ-a	Musika	Jai Batzordea	Erdaraz
Pertsonen erreskate txakur taldearen erakustaldia	Besteak	Jai Batzordea	Erdaraz
El viaje ulterior	Antzerkia	Jai Batzordea	Erdaraz
Koadrilen arteko Grand Prix	Besteak	Manzarbeitia ganadutegia	Elebitan
Benta zaharreko mutiko alaiak (kantu jira)	Musika	Jai Batzordea	Euskaraz
Revolta Permanent	Musika	Jai Batzordea	Euskaraz

Dupla	Musika	Txosna Batzordea	Elebitan
Los 40 principales dance-Durango Gaua	Musika	Jai Batzordea	Erdaraz
San Fausto XXX. Calva txapelketa	Lehiaketa	Centro Palentinon Castellano Leonés-Peña Calvera	Erdaraz
Beatbox, breakdance, parkour, skate eta surfskate tailerrak	Haurrak	Jai Batzordea	Erdaraz
Umeentzako jolasak	Haurrak	Txosna Batzordea	Euskaraz
Poniak eta Zaldiak	Haurrak	Centro Hípico Dukiena	Erdaraz
Ping pongtxapelketa eta saskibalo txapelketa	Kirola	Auzo Alai Elkarte (Madalena)	Erdaraz
Paella txapelketa	Lehiaketa	Txosna Batzordea	Euskaraz
Arte martzialen kalejira eta erakustaldia	Kirola	Club Deportivo Wado Kan Karate-Ninjutsu	Erdaraz
Egundo I	Musika	Jai Batzordea	Euskaraz
My Bastard Friends	Musika	Txosna Batzordea	Erdaraz
Gora Kasete	Haurrak	Jai Batzordea	Euskaraz
Errekortadoreen txapelketa eta bigantxak	Besteak	Manzarbeitia ganadutegia	Elebitan
Luhartz	Musika	Jai Batzordea	Euskaraz
In Situ	Besteak	Jai Batzordea	Euskaraz
Mice	Musika	Txosna Batzordea	Euskaraz
Ganorabakuek	Musika	Txosna Batzordea	Euskaraz
Mockers	Musika	Txosna Batzordea	Euskaraz
Gora Etorri	Musika	Txosna Batzordea	Euskaraz
Haur parkea	Haurrak	Jai Batzordea	Euskaraz
Ipuin kontalaria	Haurrak	Kids & us	Erdaraz
Nagusientzako bazkaria eta orkestra	Besteak	Jai Batzordea	Elebitan
Al otro lado	Antzerkia	Jai Batzordea	Erdaraz
Demode Quartet	Musika	Jai Batzordea	Euskaraz
Gurutze Gorriaren ate irekien jardunaldiak	Besteak	Jai Batzordea	Elebitan
Back 2 Classics	Besteak	Jai Batzordea	Erdaraz
Tortilla txapelketa	Lehiaketa	Txosna Batzordea	Euskaraz
Serigrafia tailerra	Besteak	Txosna Batzordea	Euskaraz
Gurutze Gorriaren ate irekien jardunaldiak: simulazioa	Besteak	Jai Batzordea	Elebitan
Khuzayma	Besteak	Jai Batzordea	Elebitan
I. talent show lehiaketa	Besteak	Jai Batzordea	Euskaraz
Liher	Musika	Txosna Batzordea	Euskaraz
Ira	Musika	Txosna Batzordea	Erdaraz
Jamming tour improbisazio saioa	Besteak	Jai Batzordea	Erdaraz
Bertsolariak	Besteak	Jai Batzordea	Euskaraz
Xake txapelketa	Lehiaketa	Jai Batzordea	Erdaraz
Patata tortillaren XII. txapelketa	Lehiaketa	Jai Batzordea	Elebitan

Xaibor	Haurrak	Jai Batzordea	Euskaraz
Elkartasun bazkaria	Besteak	Txosna Batzordea	Euskaraz
Ez da kasualitatea bertso saio musikatua	Besteak	Txosna Batzordea	Euskaraz
Taldeakako mozorro desfilea	Besteak	Jai Batzordea	Euskaraz
Inprobisazio musika saioak "Batalla de gallos"	Besteak	Auzo Alai Elkartea	Erdaraz
Stragos DJ	Musika	Jai Batzordea	Erdaraz
Luhartz	Musika	Txosna Batzordea	Euskaraz
Nueva Alaska	Musika	Jai Batzordea	Erdaraz
Txapito Guzman eta Ibarako langostiniek	Musika	Txosna Batzordea	Elebitan
Haurparkea	Haurrak	Jai Batzordea	Elebitan
Haurrentzako tailerrak (ASEBI elkartea)	Haurrak	Jai Batzordea	Elebitan
Haurrentzako tailerrak (Denboraren Bankua)	Haurrak	Jai Batzordea	Elebitan
Ohenelastikoak, zezen mekanikoa eta jolasak	Haurrak	Jai Batzordea	Elebitan
Durangoko Orfeoia (kalejira)	Musika	Jai Batzordea	Elebitan
Trakamatraka	Haurrak	Jai Batzordea	Euskaraz
Tabira Musika Banda	Musika	Jai Batzordea	Erdaraz
Danok Dantzara tailerrak	Besteak	Jai Batzordea	Elebitan
Puski eta Txurruksi	Haurrak	Txosna Batzordea	Euskaraz
Izar Gaztea Abesbatza	Musika	Jai Batzordea	Elebitan
Errekortarien erakustaldia	Besteak	Manzarbeitia ganadutegia	Elebitan
Grupo Veracruz	Musika	Jai Batzordea	Erdaraz
Txokolatada eta Pantxikeri agurra	Besteak	Txosna Batzordea	Euskaraz

5. Ondorio nagusiak

Datuak ikusita argi geratu da Durangoko San Fausto jaiak erdaldunetik gehiago dutela euskaldunetik baino, erdarazko programazio eta ekintzak direla nagusi.

Bereziki esanguratsua da umeei zuzenduta egiten diren ekintzak erdara hutsez izatea gehien bat (%50), helduei zuzendutakoak baino ehuneko handiagoan (%37).

Hemen azaldu diren datuak ez doaz Durangoko hizkuntza ulermen datuekin bat, azken EUSTATen inkestaren arabera Durangoko biztanleen %73a euskara ulertzeko gai baita, eta umeen kasuan %97a.

Berbaro Elkartearen ustez datu hauek iraultzeko garaia da. Datu hauek eskaini gura izan ditugu egoera zein den ikusi, hausnartu eta denon artean jaiei buelta bat emateko. Badakigu ez dela erraza durangar gehienentzat erakargarria izango den jai egitarau zabal bat osatzea, baina mahai gainean ipini ditugun hizkuntza datuak ez dira onargarriak, eta bereziki larria da umeei zuzendutako ekintzen hizkuntza eskaintza.

Kasu gehienetan konponbide erraza dauka egoerak: aurkezle edo dinamizatzaile euskaldunak eskatzea, itzulpen zerbitzuak eskaintzea, euskal musika eskaintzea barraka edo ekintzetan ipintzeko, eta abar.

Uste dugu lorgarria dela datorren urteko San Fausto jaietako ekintzen hizkuntza datuak Durangoko euskara ulermen datuekin bat etortzea, eta aurrera begira ere, euskara hizkuntza gutxitua izanik, euskara lehenetsi eta Durangon jai euskaldunak egitea, behaketetan argi ikusi baitugu euskara hutsez burutu diren ekintzetan euskara ulertzen ez zuen jendeak ere ez duela arazorik izan bertan parte hartu eta ondo pasatzeko.

Hasieran esan dugun moduan, txosten honen helburua ez da inor seinalatu edo salatzea, egoera erakutsi eta konponbideak mahai gainean jartzea baino. Horregatik, berriro ere eskua luzatzen diegu jaien antolakuntzan dabiltzan eragileei edozertan laguntza behar izanez gero gugana jotzeko, denon artean datu hauei buelta eman diezaiegun.



Pinondo Plaza, 1
48200 Durango
Bizkaia
946 201 918
946 202 540
www.berbaro.eus